

The logo consists of the lowercase letters 'æek' in a bold, rounded, cursive-style font. The 'æ' is a stylized character with a loop. The 'e' is also rounded and connected to the 'æ'. The 'k' is tall and has a sharp, pointed top. The entire logo is rendered in a vibrant orange color.

***Euskaraz Koop. S.ren Gardentasun ataria  
(Hego Euskal Herriko AEK)***

## 1. GOBERNU ORGANOAK

AEKren erabakigune gorena Batzar Nagusia da. Horren "menpeko" dira Artezkaritza Kontseilua eta Koordinatzaile Nagusia, eta horien ardurapean Zuzendaritza Teknikoa dago. Bestalde, lurralde antolamendua kontuan harturik, Herrialde Batzordeetan biltzen dira herrialde bakoitzeko ikasguetako zuzendariak tokiko Artezkaritza-kontseiluko ordezkaria, didaktika koordinatzailea eta Herrialdeetako koordinatzaileak.

**Batzar Nagusia:** erakundearen organo gorena. Artezkaritza Kontseiluak proposatutako urteko plangintza eta ildo estrategikoak erabakitzeko eskumena du. Kooperatibako bazkide orok bozka emateko eskumena du. Ikasturtean bi aldiz batzen da, martxoan eta ekainean.

- Martxoko batzarra: aurreko urteko kontuak itxi, aurreko ikasturteko plangintzaren behin betiko balantzea eta indarrean dagoen ikasturteko plangintzaren betetze-maila aurkezten dira. Horrez gain, Barne araudia eta Curriculuma ere errebisatu egiten dira orduan.
- Lau urterik behin **Hausnarketa Estrategikoa** burutzen da eta hurrengo epealdirako **lan-ildo estrategikoak** zehazten dira.
- Ekaineko batzarra: ikasturteko behin-behineko balantzea eta hurrengo ikasturteko plangintza aurkezten dira.

**Artezkaritza Kontseilua:** erakundearen ordezkari nagusia, koordinatzaile nagusiarekin batera. Estrategia eta plangintza diseinatzeko ardura nagusia. Hilean behin biltzen da.

<b>Lehendakaria</b>	Aitziber Balantzategi Ibargoitia	Araba
<b>Lehendakari orde</b>	Aize Otaño Lizarralde	Gipuzkoa
<b>Kide 1</b>	Bixente Claverie	Aditua (Iparraldea)
<b>Kide 2</b>	Xabier Gartzia Castell	Nafarroa
<b>Kide 3</b>	Lurdes Etxezarreta Artabe	Bizkaia

**Idazkari Teknikoa:** Ez da, berez, Artezkaritza Kontseiluko kidea; lan tekniko batzuk garatuko ditu (aktak, gardentasun atala web orrirako...)

<b>Idazkaria</b>	Iñaki Urquijo Velasco	Bizkaia
------------------	-----------------------	---------

**Koordinatzaile Nagusia:** Zuzendari-Gerente rola dauka. Bere ardura nagusia Zuzendaritza Teknikoa gidatzea eta Artezkaritza Kontseiluarekiko zubi-lana egitea da.

Alizia Iribarren Andueza	Tutera
--------------------------	--------

**Zuzendaritza Teknikoa:** erakundearen plangintzak garatzeko ardura, zerbitzu eta jardueren koordinazioa eta jarraipena. Hilean behin batzen da.

Osaketari dagokionez, Zerbitzu Orokorretako arduradunak (Ekonomia, Komunikazioa, Didaktika eta IKT), Herrialde bakoitzeko Koordinatzaile bana eta Hobekuntza Arduraduna elkartzen dira Koordinatzaile Nagusiarekin batera.

Benito Fiz Diez	Didaktika
Karlos Ondaro Agirrebeitia	Ekonomia
Asier Arroita Lafuente	IKT
Helios del Santo Gómez	Marketin-Komunikazioa
Nerea Ibarlucea Eguren	Hobekuntza
Aintzane Pradera Garate	Arabako koordinatzailea
Aitzol Gastañazatorre Gorritxategi	Bizkaiko koordinatzaileak
Olaia Murua Zuazubiskar	Gipuzkoako koordinatzailea
Beatriz Buldain Echarri	Nafarroako koordinatzaileak

Herrialdeetako beste koordinatzaileak:

Alberto Serrano Echevarria	Bizkaia
Beñat Alzaga Olazabal	Gipuzkoa
Xabier Gartzia Castell	Nafarroa

**Herrialdeetako batzordeak:** herrialde mailako koordinazio gunea. Informazioa zabaldu, iritzia eman-jaso eta komunikazioa konpartitzekoa. Hilean behin biltzen dira, gutxienez. Osaketa: herrialdeko koordinatzaileak, herrialdeko didaktika koordinatzailea, tokiko Artezkaritza-kontseiluko kidea eta ikasguetako zuzendariak. Gainontzeko zerbitzuburuak eta jarduera arduradunak aldiari behin baino ez.

**Ikasguak:** erakundearen funtzionamendurako oinarrizko guneak ditugu. Euskaltegi bakarrez edo gehiagoz osatuta. Ikasgu bakoitzak zuzendari bat du; inon, zuzendari bat baino gehiago dago. Funtzionamendua zehazteko oinarrizko gunea ikasguko batzarra da. Bere plan eta memoria osatzen du ikasturtero. Ikasguko batzarrean bertako AEKide guztiak batzen dira eta hori da bertako ebatzorgano gorena. Plangintzan zehazten dira ikasturteko helburu eta ekintzak, baita bertako funtzionamendu eta lan banaketa ere. Euskaltegi bat baino gehiago duen ikasguak euskaltegi guztien garapenerako dinamikak eta bitartekoak zehaztuko ditu.

**Erakunde mailako zerbitzuak:**

- **Didaktika:** irakaskuntza eskaintzarekin lotua. Berrikuntzak ikertu, AEKren curricula garatu, programak, ikasmaterialak eta baliabideak diseinatu eta artapen didaktikoa ematea ditu eginkizun nagusiak.
- **Marketin-komunikazioa:** Kanpo eta barne komunikazioa bideratzen du (Prentsa agerraldiak, kanpainak...). AIZU! Aldizkaria kudeatzen du.
- **IKT:** Informazio eta komunikazio sistemen kudeaketa bideratzen du (barne-sarea, ordenagailuen parkea, telefonia...)
- **Ekonomia:** Zerbitzu honek, arlo finantzario-kontablea eta arlo juridiko-laboralaren kudeaketa bideratzen ditu. Bestela esanda, erakundearen baliabide

ekonomikoak kudeatu eta kontrolatu eta langile eta bazkideen kontratazioa eta hauekiko harreman ekonomikoa kudeatzen ditu.

- **Prestakuntza:** AEKideon garapen profesionalerako beharrak aztertu eta horiek asetzeko plangintza gauzatzen du (saiok, tailerrak, ikastaroak...).

Marta Correa Muniozguren	Prestakuntza arduraduna
--------------------------	-------------------------

- **Jarduera arduradunak:** Aurreko puntuan azaldu bezala, AEKren helburuak egokiago betetze aldera, gure lan-esparru ezberdinetan ari gara. Hauen kudeaketa jardueraka/arloka antolatu dugu. Hauek dira jardueretako arduradunak.

Juan Carlos Ranero Maruri	AHIZE, Hizkuntza-aholkularitza
Usoa Alberdi Fernandez	EUSKARATU itzulpen-zuzenketa zerbitzua
Edorta Lopez Rey	PRAKTIKATU, mintzapraktika egitasmoak
Eñaut Mitxelena Olaizola	AIZU!
Ane Elordi Alburquerque	KORRIKA
Alizia Iribarren Andueza	Irakaskuntza

### Beste sozietate organoak:

- **Helegite Batzordea:** Hutsegite larri edo oso larriengatik egozten zaizkien zigorren aurka aurkeztutako helegiteak tramitatu eta erabakiko ditu. Era berean, Legean eta Estatutu hauetan horrela jasota dauden kasuetan, diziplina-espediterekin zerikusirik ez duten erabakien aurkako helegiteak ere aurkeztu ahal izango direnez, lan-deialdietan gerta daitezkeen helegiteak ere ebatsiko ditu.

Garbiñe Alkorta ( Indautxuko AEK)
Iñaki Ibarluzea ( Amurrioko AEK)
Koldo Rodriguez (Ekonomia Zerbitzua)

- **Zaintza Batzordea:** Kooperatibaren eta Artezkaritza Kontseiluaren jardueraren ikuskatzailetza egingo du:
  1. Hiru hilabeterik behin, kooperatibaren jardueraren eta aurreikus daitekeen bilakaeraren berri jaso eta aztertuko du.
  2. Urteko kontuak berrikusi kontu ikuskaritzarik (auditoriarik) egiten ez bada.
  3. Batzar Nagusien gaitegia aztertu eta interesgarri iruditzen zaionean edo bazkideek eskatuta gairen bat gehitzea eskatu ahalko dio Artezkaritza Kontseiluari.
  4. Batzar eguneko antolaketa bideratu (harrera, ordezkatzeko agirien jarraipena, bozketen kudeaketa...). Era berean, Batzarrerako bertaratuen zerrendak eta botoak... aktalariei emateko ardura izango dute.
  5. Estatutuek eta legeek ezatzen dizkieten gainontzekoak.

Maider Ibarrondo ( Santutxuko AEK)
Patxi Martinez (Ekonomia Zerbitzua)
Oihana San Jose ( Donostiako Irrintzi AEK)

### Berdintasuna batzordea:

Berdintasun-planaren diseinua eta jarraipena egitearen ardura dauka. Era berean, berdintasun-planaren ekintzak aurrera eramateko ezartzen den plangintzan, lan banaketa tartean, batzordeko kideak ekintza zehatz batzuen "garapenez" ere arduratuko dira.

Izaskun Zabalza
Alizia Iribarren Andueza
Helios del Santo Gomez
Amaia Sarrionandia Olabarri
Amaia Zaldua Arrillaga
Oskar Busto Ruiz
Aiala Zaldibar
Irati Txapartegi
Asier Biurrun Ajuria